267. zk.
Bigarren aroa
Abenduak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Pio Barojak 50 urte bete ditu

6. orrialdea

Erreportajea
Euskararen Eguna

4-5. orrialdeetan

Bukaera ikusgarria eman dio Iñigo Cervantesek 2015 urteari

3 Erreportajea Jesus Sorarrain, Estatu Batuetan ibilitako artzaina.
6 Inkesta Nola ospatuko dituzu Eguberriak?
8 Kirolak Jose Enrique Borda judo entrenatzaileari elkarrizketa.
10 Gurasoentzat Tristura.
11 Haurren Leihoa Elatzeta LH2.
12 Gazteen Lanak Txingudi Ikastola, Itziar Guzman.
14 Gazte infor
15 Agenda

Argazki lehiaketa

Mikel Hernandez
San Migel auzoko iturria, 1976koa.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Luis Mariano Kalea

IUA: 56267

Luis Mariano kalea, 1977-1978 urtean.

Luis Mariano kaleari 1970eko uztailaren 28ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena. Olazabal mendiko sektorearen Plan Partzialean sartuta zeuden lurrak urbanizatu ondoren, Colon ibilbidearen ertzeraino iristen baitziren, eraikinen eta kaleen multzo bat sortu zuten. Horien artean kokatzen dira Luis Mariano kalea eta lorategiak.

Luis Mariano Eusebio Gonzalez Garcia, kantuaren munduan Luis Mariano izen artistikoaz ezaguna dena, Irunen jaio zen, 1914ko abuztuaren 12an.

Haurra zenetik bokazio berezi bat izan zuen kanturako. Solfeoa ikasi zuen udal musika akademian, Murua maisuarekin. “Amateur” gisa jardun zuen Irungo “Los Buenos Amigos” elkartean, eta profesional gisa Parisko “Palais National de Chaillot”-en. Haren gaitasun artistikoak eta izaerak Europako nahiz Ameriketako eszenatokietara eraman zuten, baina Frantzian lortu zuen osperik handiena, herrialde horretako idolo bilakatzeraino.

Arte lirikoa izan zen, opereta zehatzago, bere ibilbideko maila gorenera eraman zuena. Zineman eta antzerkian ere lan egin zuen.

Ospeak eta famak ez zion Irun jaioterria eta bere lagunak ahaztera eraman. Azken horiek beti jarraitu izan zuten, interes handiz, Marianoren karrera artistiko distiratsua.

“Operetaren Printzea” deitua izan zena, 1970eko uztailaren 13ko gauean hil zen Parisen, buruko hemorragia handi batek jota, 55 urterekin. Bere gorpua Iparraldeko Arrangoitze herriko hilerrian ehortzi zuten, eta han egin zitzaion hil ondoko omenaldia, irundarren ordezkaritza zabala bertaratu zelarik.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Galdutako bizimodu baten lekuko

Jesus Sorarrain Estatu Batuetan ibilitako artzain ohia gonbidatu du Landetxa Auzo Elkarteak

Ehunka izan ziren XX.mendean zehar Ameriketako Estatu Batuetara ar-tzain joandako euskaldunak. Asko eta asko han gelditu ziren, eta euskal diasporaren parte dira gaur egun, haiek edo haien ondorengoak. Beste batzuk etxera bueltatu ziren, eta esperientzia harrigarriak kontatu izan dituzte. Landetxa Auzo Elkartean artzain ohi bat gonbidatu dute kultura arteko astearen baitan. Jesus Sorarrain alkizarra da, baina senideak ditu Irunen, emaztearen aldetik. Hiru urte eta erdi egin zituen Estatu Batuetan, 1980ko hamarkadaren amaieran. 22 urterekin joan zen, aldez aurretik sekula ardien artean ibili izan gabe. Euskal artzainen aroa azkenekoetan zegoen arren, mundu hura ezagutzeko aukera izan zuen.

Duela 32 urte heldu zen Jesus Sorarrain Idahora, Ameriketako Estatu Batuetara. “Legal” joan zela baieztatu du, kontratua aldez aurretik sinatuta eta bidaia ondo antolatuta. Sukaldaria da ofizioz, eta Donostian egiten zuen lan, jatetxe batean. Bazegoen artzain bat mamia eramatera joaten zena, eta hark animatu zuen. Artzainaren laguntzaz, kontratua sinatu zuen, ekainaren 20an. Baina abendura arte itxaron behar izan zuen, bisa noiz iritsiko. Inuzente egunean egin zuen bidaia, abenduaren 28an. “Euskal Herrian negu gozoa izan zen hura. Idahora iristerakoan, berriz, sekulako hotza eta elurra topatu nituen”, gogoratu du Sorarrainek. Boisen eman zituen lehen egunak, Idahoko hiriburuan. Highlands Comany-ren arrantxora urte zahar egunean iritsi zen. Beste hamabost euskaldun topatu zituen bertan. Baina ia ingelesa baino gutxiago ulertzen zuen haien euskara. Denak bizkaitarrak ziren.

Hala ere, egin zioten harrerarekin harrituta gelditu zela azpimarratu du Jesus Sorarrainek: “Denak pozez zoratzen zeuden, bostekoak eta besarkadak ematen. Gero konturatu nintzen soldata jasotzen zuten eguna zela”. Urtean behin kobratzen zuten artzainek orduan. Arrantxoaren egitura ere deigarria iruditu zitzaion alkizarrari: “Elementu bat bera ere ez zegoen soberan. Dena zehatz-mehatz kalkulatuta zegoen”. Iritsi zenean, 12.000 ardi zeuden arrantxoan, erditzeko prest. Urtarrilaren 11n jaio ziren lehen arkumeak, eta lau aste beranduago azkenak. 300-400 arkume jaiotzen ziren egunean, eta ondo antolatuta zegoen haien zaintza. Egunero-egunero zenbatzen zituzten. “Jaiotzen ziren arkume guztiak bizirik atera behar ziren. Hura enpresa bat zen”, azpimarratu du Sorarrainek: “Den-dena apuntatu egiten zen”.

Martxoaren hasieran, arrantxoa utzi behar izaten zuten artzainek, artaldearekin. Neguko elurra urtzen hastearekin batera irteten ziren. “Gastu handia zen ardiak arrantxoan edukitzea. Harrigarria da zenbat jaten duten”, aipatu du alkizarrak. Atera aurretik, ilea mozten zieten ardiei, eta zikiratu ere egiten zituzten. Mendi aldera joaten ziren ondoren, larre berdeen bila. Hortik aurrera, hamar hilabeteko epean, 700 km inguru egiten zituzten oinez. Halako ibilaldiak eginda, lau urtean ikaragarri argaldu zuela baieztatu du Jesus Sorarrainek: “Ni 86 kilorekin joan nintzen. Gogoratu sukaldaria nintzela. Ba Estatu Batuetatik, 65ekin bueltatu nintzen”. Idahon beti bi artzain izaten ziren artalde bakoitzeko. Mendi malkartsuak eta baso sakonak daude, eta zaila zen, beraz, ardiak kontrolatzea. 2.300 ardi inguru izaten zituzten guztira.

Tarteka ardi batzuk galtzen zituzten artzainek, eta ez baldin baziren azkar konturatzen, gutxi irauten zuten ardiek bizirik. Zauri bat eginez gero, harrak sortzen zitzaizkien, eta segituan hiltzen ziren. Bestela, koioteek edo hartzek jaten zituzten. “Hartzek harrapatzen dutena jaten dute. Koioteek, berriz, arkumerik ederrenak hautatzen dituzte”, argitu du Sorarrainek. Bestela hotzez hiltzen ziren ardiak, gauean izoztuta. Artzainek sua pizten zuten gauero, eta zakuan sartuta eta oihal handi batekin inguratuta egiten zuten lo. Arropak azpian jartzen zituzten gainera, hurrengo egunean epel egon zitezen. “Artzainak ez du lan handirik egin behar izaten. Baina asko sufritzen du eguraldiarekin”, nabarmendu du alkizarrak. Gorputza garbitu gabe egoten ziren hilabetetan, erreketan sartzea pentsaezina zelako, hotzaren ondorioz. “Sekulako kiratsa” izaten zutela onartu du Jesus Sorarrainek.

Mendiko eskasiatik herriko oparotasunera

Zortzi-hamar ardi inguru, urtean zehar jateko gordeta izaten zituzten. Gainerako jakiak, arduradun batek eramaten zizkien, noizean behin. Lurraren azpian egindako brasan prestatzen zuten janaria. Eta alde batetik bestera garraiatzeko, mandoak eramaten zituzten. Denbora pasatzeko, liburuak irakurtzen zituen Jesus Sorarrainek. Eguneroko bat idatzi zuela azaldu du: “Osaba fraidea nuen, eta hark esan zidan idazteko, ez nintzela damutuko. Arrazoi zuen”. Aizkoran ere aritzen zen askotan, afizio handia baitauka. Beste artzainarekin, eztabaida amaigabeak izaten zituela gogoratzen du. “Pentsatu behar da han ez duzula beste zer eginik. Ez duzu presarik inora joateko. Kontzeptu hori oso argi eduki behar du artzainak”, argitu du Sorarrainek.

Hamar hilabeteren ondoren arrantxora bueltatzerakoan, herrira jaistea izaten zen artzainen lehentasunetako bat. Kamioneta batean joaten zen dozena bat lagun, atzeko aldean, hotzak akabatzen. Herrira iritsi bezain pronto, dendara joaten ziren, arropak, gerrikoak, gerrikoarentzako txapak, edo alkohola eta tabakoa erostera . “Harrapatzen genuen guztia erosten genuen. Dirua geneukan, eta ez genuen behar”. Jatetxeetan ere, neurririk gabe jaten zuten. Buffet moduko jatetxeen jabeak harrituta uzten zituzten. Parranda eder batekin amaitzen zen artzainaren urteko zikloa. Hiru urte eta erdi egin zituen Jesus Sorarrainek Estatu Batuetan, eta 1987an bueltatu zen Euskal Herrira. “Denbora gehiago egiteko prest nengoen. Baina mundu hura gainbeheran zegoen”, argitu du artzain ohiak. 2010 urtean joan zen bisitan, eta aspaldi itxita topatu zuen Highlands Company.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

"Denboran atzera egitea izan da euskara ikasleekin elkartzea"
Fermin Muguruza, artista

"Euskararekiko dituzten sentimenduak jaso dituzte hiritarrek"
Arantza Zulet, Euskara arloko teknikaria

Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a. Ospatzeko, aste osoko egitaraua izan da Irunen. Jarduera batzuk Udalak antolatu ditu. Gainerako administrazioekin bat egin du, Euskararen Eguna "Emozioak Airean" lelopean ospatzeko, eta bereziki euskaldun berriei aitortza egiteko. Beste jarduerak, Euskararen Egunak egitasmoa aurrera eraman duten elkarteek antolatu dituzte (Antxeta Irratia, AEK, EKT, Kemen Dantza Taldea, Betti Gotti, Auntxa Trikitixa Eskola, Irungo Musika Eskolako trikitixa taldea, Txorimaloak, Irunabar, Irungo Atsegina, IAE-AFI eta Santiagoko Deabruak). Abenduaren 3a bera, betebetea izan da Irunen.

Goizean-goiz hasi dira Euskararen Egunarekin lotutako jarduerak. Euskaldun edo euskara ikasle askok autobusa hartu dute, hasteko, Hondarribian izan baitute lehen hitzordua. Bidasoa-Txingudiko, Hego Lapurdiko eta Bortzirietako Udalak biltzen dituen Sareuska erakundeak, Mintzodromoa antolatu du Hondarribian. 160 lagun bildu dira Itsas Etxea eraikineko auditoriumean, euskaraz hitz egiteko helburuarekin. Launakako taldeak osatu dituzte, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak nahastuta. Hiru gai ezberdinen inguruan aritu dira.

"Denboran atzera egitea izan da euskara ikasleekin elkartzea. Topatzen dituzten zailtasunak ikusi ditut, eta konturatu naiz nik berdinak izaten nituela", gogoratu du Fermin Muguruza artista irundarrak. Euskaldun eta euskara ikasle anonimo asko egon dira Hondarribian, baina hiru eskualdeetako pertsonaia ezagunak ere bai. Muguruzaz gainera, Ives Sallaberry Xala pilotaria, Julen Zelaieta bertsolaria, edo Bidasoa eskubaloi taldeko edo Hondarribia Arraun Elkarteko kirolariak izan dira Sareuskaren Mintzodromoan.

Goizeko 10:00etan, zenbait irundar Mintzodromoan zeuden bitartean, CBA kultur gunearen inguruan puxikak lotzen hasi dira. Puxika zuriak ziren, jendeak gainean idazteko aproposak. "Euskararekiko dituzten sentimenduak jaso ahal izan dituzte hiritarrek", argitu du Arantza Zulet euskara teknikariak. Javier San Martin Shaf artistak diseinatu eta antolatu du GloboArt ekimena, Irungo Udalaren egitarauaren baitan. Jendearen parte hartzea bultzatu nahi izan duela azaldu du San Martinek: "Globoak festaren ikur dira, horregatik hautatu ditugu. Liburutegiaren inguruan kokatu ditugu, metafora gisa, bertatik irteten direlako hitzak".

Eguerdian, irratiaren bidez jarraitu ahal izan dute irundarrek Euskararen Egunak ekimenaren baitako proposamen erakargarria. Mahai-ingurua antolatu du Antxeta Irratiak, eskualdeko Euskara zinegotziekin: Josune Gomez (Irun), Arantxa Berrotaran (Hondarribia) eta Michelle Mouinos (Hendaia). Hiri bakoitzean euskarak bizi duen egoerari buruz aritu dira, eta ondorengo hausnarketa utzi du Josune Gomez Irungo Udaleko Euskara arloko ordezkariak: "Euskararen ezagutzak hobera egin du azken hamarkadan, ikastetxeek D eredua ezarri dutenean. Dena den, gauza bat da ezagutza, eta beste bat erabilera. Irunen, hutsune handi bat dago, batez ere, gazteen artean. Horrek lanketa bat eskatzen du".

"Irunen hutsune handi bat dago, batez ere, gazteen artean"
Josune Gomez, Irungo Udaleko Euskara ordezkaria

Egun bizia izan da abenduaren 3a Irunen

Hitzorduz bete dute udalak eta elkarteek Euskararen Nazioarteko Eguneko egitaraua

Arratsalde oparoa

GloboArt ekimenak jarraipena izan du arratsalde osoan zehar. Gainera, babes musikala izan du 17:30etatik aurrera. Lehenengo Oihan Vegak diskofesta eraman du San Juan plazara. Gero, 19:45ean hasita, Demode Quartet kantu eta umore taldeak "Epa!" ikuskizuna eskaini du. San Juan plazaren inguruko ostalariek ere festarekin bat egin nahi izan dute. Manolo, The Corner, The Bohemian, Sargia eta Mari tabernek txokolate beroa eskaini diete GloboArt egitasmoan parte hartu duten haurrei. Horiekin hurbildu diren helduei, pintxo potea eskaini diete, euro eta erdiren truke.

Beste kultur hitzordu bat ere izan da abenduaren 3ko arratsaldean. Elkarteek proposatutako Euskararen Egunak egitarauaren baitan, Irunabar bertsoaren bilguneak hileroko bertso saioa antolatu du Kabigorri Ateneoan. Hamarnaka lagun bildu dira bertsolarien lanaz gozatzeko. Sarrera moduan, Egoitz Zelaia hendaiarrak bertso jarriak kantatu ditu. Ondoren, Patxi Castillo beratarra, Jon Martin eta Karlos Aizpurua oiartzuarrak eta Aitor Errazkin irundarra aritu dira, Joxeja Zabaloren esanetara, berak egin baititu gai-jartzaile lanak. Bertsolariei ere, euskarak haien herrietan bizi duen egoeraz galdetu diete. Aitor Errazkinek mezu baikorra utzi du, kantuz, Euskararen Eguna agurtzeko: "Baina aitortu behar baldin badut, ez zait batere inporta. Bizitza hontan txar den guztia mejoratzeko dago ta".

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Urrezko institutua

Berrogeita hamargarren urteurrena ospatu du aurten Irungo Pio Baroja Bigarren Hezkuntzako Institutuak. Ikasturte hasieraz geroztik ibili dira ospakizunetan, baina abenduaren 11n izan da urrezko ezteiak borobildu dituen hitzordu nagusia. Amaia Kultur Zentroan egin dute, akademikoa eta jai girokoa izan den ekitaldia. Egungo irakasleek eta ikasleek, ikasle ohiek eta bestelako gonbidatuek parte hartu dute.

2014-2015 ikasturtearen amaieran eman zioten hasiera Pio Baroja institutuaren 50. urteurrenaren ospakizunari. Ikasturte berriarekin batera, kartelen, bideoen eta literatur lanen lehiaketak egin dituzte, esaterako, mende erdiarekin lotuta. Baina ekitaldi nagusia, Amaia Kultur Zentrokoa izan da. Institutuak gonbidatutako ehun lagundik gora bildu dira antzokian. Askok adeitsu agurtu dute elkar, besaulkietan lekua hartu baino lehen. Ezustekoak izan dira agurretako batzuk, aspaldi harremana galdutako irakasle edo ikasle ohien artean. Argiak itzali direnean, Kukai dantza taldeko neskek eman diote hasiera ikuskizunari. Txalo zaparraden artean irten dira, ondoren, ekitaldiaren aurkezleak. Ander Arzak kazetari eta ikasle ohia aritu da euskaraz, eta Ana Vitoria egungo ikasle brasildarra, gaztelaniaz.

Hizlariei hitza eman diete, banaka. Mikrofonoaren aurretik pasa dira Javier Garin institutuko zuzendaria, Pío Caro Baroja Jauregialzo Baroja familiaren ordezkaria, Jose Antonio Santano Irungo alkatea, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua, Alberto Gorriz eta Iñigo Lavado ikasle ohiak, Juncal Basurko lehen promozioko ikaslea, eta Koldo Ortega zuzendari ohia. Bertso saio labur bat egon da, Angel Mari Peñagarikanoren eta Manu Goiogana ikasle ohiaren eskutik. Bi bideo ere jarri dituzte. Lehenengoa egungo ikasleek egin dute, institutuaren historia laburtzeko. Bestean, ikasle izandako pertsonaia ezagunek mezu laburrak utzi dituzte. Pantailan agertu dira, besteak beste, Julen Aginagalde eskubaloi jokalaria, Diego San José gidoilaria, David Zurutuza futbolaria edo Lourdes Maldonado kazetaria. Iñigo Lavado sukaldariak prestatutako bazkariarekin amaitu da ospakizuna.

Aitzindari eta erreferente

1965 urtean zabaldu zituen ateak Pio Baroja Institutuak. 17,5 miloi pezeta bideratu zituzten eraikitzeko. Manuel Lora-Tamayo orduko Hezkuntza ministro frankistak inauguratu zuen. "Gipuzkoako probintziako izkina honetan institutu bat irekitzeak esanahi handia zuen. Horregatik etorri zen ministroa bera", argudiatu du Javier Garin zuendariak. Gipuzkoako bigarren institutu publikoa izan zen Pio Baroja. Juncal Basurko lehen promozioko ikasle ohia da, eta institutua berritzailea zela gogoratu du: "Ez zegoen fraiderik edo mojarik, eta neskak eta mutilak elkarrekin ginen klasean". Irungo eta inguruko familia askorentzat, haurrak institutura bidali ahal izatea aurrera pauso handia zen. "Goi mailako ikasketak egiteko tranpolina izan zen. Garai hartan oso zaila baitzen unibertsitatera heltzea, neskentzat batez ere", azpimarratu du Basurkok.

> "Ez ditugu ahaztuko Bidasoan gorako herrietako ikaskideak"
> Juncal Basurko, lehen promozioko ikaslea

Esperientzia ona izan zela baieztatu du Juncal Basurkok, eta harreman ona duela oraindik lehen promozio hartako ikaskideekin. Irundarrak ziren gehienak, baina inguruetako herrietakoak ere bazeuden: "Hondarribiko, Oiartzungo eta Errenteriako ikasleak etortzen ziren. Ez hori bakarrik. Ez ditugu inoiz ahaztuko Bidasoan gorako herrietako ikaskide nafarrak. Egun osorako etortzen ziren, Bidasotarra autobusean, bokadilo eta guzti". Gaur egun, Berako, Lesakako edo Iparraldeko ikasleak hartzen ditu oraindik Pio Baroja institutuak. 20.000 ikasle izan ditu 50 urteko ibilbidean.

Egokitzeko gaitasuna

Urte horietan guztietan, institutuak gizartearen aldaketetara "moldatu" behar izan duela adierazi du Javier Garin zuzendariak. 80ko hamarkadan, D eredua ezarri zuten, eta batxilergoa euskaraz eskaintzen hasi ziren Pio Barojan. Garai hartan, Lucia Garbayo gurasoen elkarteko presidente izendatu zuten. Lehen emakumea izan zen kargu horretan, eta bidea ireki nahi izan zuela azaldu du: "Oso aztoratua zegoen gizartea orduan, eta institutuan antzematen zen. Nire alaba bertan ikasten ari zen, eta institutuaren alde lan egiteko eta hobetzeko hartu nuen erronka. Oso esperientzia ederra izan zen". Urte batzuk beranduago, gaueko batxilergoa eskaini zuen Pio Barojak. "Funtzio sozial garrantzitsua betetzen du", nabarmendu du Javier Garinek.

> "Memoria kolektiboaren parte da Pio Baroja institutua"
> Javier Garin, zuzendaria

Institutua inauguratu zenetik 50 urte pasa direla kontuan hartuta, arrunta da jada ikasle ohien seme-alabak institutuan ikustea. "Urte batzuk daramatzagunoi askotan gertatzen zaigu", onartu du Amador Villamía filosofia irakasleak. Juncal Garbayok, esaterako, Pio Barojan matrikulatu zituen seme-alabak. Institutua Irungo "ondarea" dela baieztatu du Koldo Ortega zuzendari ohiak: "Herriarekin bat egiten asmatu du". Are gehiago esan du Javier Garin egungo zuzendariak. Irungo azken mende erdiko historian ikur bilakatu dela uste du: "*El insti* ezizena du, eta oso esanguratsua da hori. Memoria kolektiboaren parte da Pio Baroja institutua".

Inkesta

Nola ospatuko dituzu Eguberriak?

Jose Maria Sarobe

Eguberriak, nire partetik, triste samar pasako ditut. Alarguna naiz, eta asko akordatzen naiz emaztearekin. Seme alabak dauzkat eta asko laguntzen didate, baina beti arrasto bat geratzen da, etxekoandrearena. Diferentea da emaztea eta etxekoandrea izatea. Emazte asko daude, baina etxekoandre gutxi.

Natalia Sansegundo

Oraindik ez dakit nola ospatuko ditudan, lan egin behar dut eta. 24a eta 31a familiarekin pasako ditut, 24a familiaren alde batekin, eta 31a bestearekin. Gero, espero dut parranda pixka bat egin ahal izatea, lan egitea egokitzen ez baldin bazait.

Rosa Lizardi

Beti bezala pasako ditut. Familian, eta ohi baino pixka bat gehiago janez. 24a eta 25a nire amaren etxean, Nafarroan ospatzen ditugu. 31n eta 1ean, ama etortzen da etxera. Horrela saiatzen gara pixka bat banatzen bi egun horiek.

Iñaki Susperregi

Familiarekin egongo naiz, eta gero lagunekin joango naiz paseatzera, mendian ibiltzera eta beste zenbait plan egitera. Gabon gauean nire amonaren etxean afaltzen dugu, eta 25ean ere bai. Uste dut aukera ona dela familiarekin egoteko, hizketan eta abesten.

“Judoa arlo askotan izan daiteke onuragarri”

JOSÉ ENRIQUE BORDA, judo irakaslea:

1960ko hamarkadan heldu zen judoa Irunera. Gonzalo Lavadok sortu zuen lehen elkartea, Maki Wara, formazioa Donostian jaso ondoren. Lavadoren ikasle izan zen José Enrique Borda, gerriko beltza lortu arte. Judo Club Bidasoa sortu zuen beranduago, eta hogeita hamar urte baino gehiago eman ditu judoa gazte irundarren artean zabaltzen. Terapeuta ere bada, Vega de Eguzkiza kalean dagoen Askatze zentroan. Judoarekin lotutako argazkiz eta oroigarriz josia du kontsulta.

“Ikasten eta sakontzen joan nintzen heinean, gero eta gehiago harrapatu ninduen”

“Ikusten baldin badut gazteek ilusioa dutela, gogor entrenatzeko eta lehiatzeko gogoa dutela, dena ematen dut”

Koldo Jauregi eta José Enrique Borda.

Zergatik hasi zinen judoan?
Oso txikia nintzela, lau-bost urterekin, osabaren eskutik hasi nintzen. Probatzera eraman ninduen behin, Maki Wara elkartera. Miguel de Anbulodi kalean zegoen orduan, Lapizen. Gonzalo Lavado izan zen nire lehen maisua. Gogoratzen dut, oraindik, nola jarri zidan gerrikoa lehen aldiz. Berak trebatu ninduen judoan, gerriko beltza lortu nuen arte.

70eko hamarkadan hasi zinenean, borroka arteetan aritzea ez zen ohikoa izango Irunen.
Ez pentsa. Orduan, jada, haur asko judoa egitera animatzen ziren, medikuek gomendatuta, arazo psikologikoak edo fisikoak gainditzeko. Kontuan hartu behar da Osasunaren Mundu Erakundeak aitortu izan duela judoaren ahalmena, gorputza eta burua orekatzeko. Maki Waran 200 haur baino gehiago izan ginen momenturen batean. Hori gaur egun pentsaezina da, judoa zabaldu delako, eta beste elkarte asko daudelako.

Ia bizitza osoa eman duzu judoari lotuta. Zer dauka horren erakargarri izateko?
Judoa egiten hasi nintzenean, jarduera bat gehiago zen, besterik gabe. Baina pixkanaka, ikasten eta sakontzen joan nintzen heinean, gero eta gehiago harrapatu ninduen. Halako batean konturatu nintzen gai nintzela imajinatzen ez nituen gauzak egiteko. Kolpean heldu zitzaidan sentsazio hori, baina oso atsegina izan zen.

Noiz eta zergatik erabaki zenuen zure elkartea sortzea?
1990ean sortu nuen Judo Club Bidasoa, nire bide propioa egin nahi nuelako. Olaketa gimnasioaren instalazioetan hasi ginen. Gaur egun Hirubide Institutuan gaude. Judoaren arlo pedagogikoa, terapeutikoa, teknikoa, lehiaketakoa eta mantenukoa lantzen ditugu. Lau urteko haurrak ditugu gazteenak, eta erretiroa hartutako gizon-emakumeak helduenak. Aspaldi judoan ibilitako jendea bueltatzen da, noizean behin, kirola egiteko eta sasoian egoteko asmoz. Ez dago judoa praktikatzeko gehieneko adinik. Japonian, badago jendea 100 urterekin judoa egiten jarraitzen duena.

Asko hazi da elkartea?
Bilakaera handia izan du, eta maila handiko judokak izan ditugu. Horren seinale, estatu mailako hogei domina baino gehiago lortu ditugula. Igor eta Maitane Herrero lehiatzen dabiltza oraindik, Nahikari Borda nire alaba ere ondo dabil. Beste asko aipatu daitezke: Joana Nicolas, Lorena Dominguez, Unai Olaziregi, Aitor Soler, Koldo Jauregi... Jende askok utzi egiten du, eta ulertzekoa da. Kirol amateurra da, ez gara futbolariak, ezta gutxiago ere.

Estatu mailan lehiatzen aritzeak ahalegin handia eskatzen du?
Bai, bokazioak bakarrik azal dezake hori. Judokak ahalegin handia egiten du, eta entrenatzaileak ere bai. Niri ez zait inoiz kostatu, nire pasioa delako. Nik ikusten baldin badut gazteek ilusioa dutela, gogor entrenatzeko eta lehiatzeko gogoa dutela, dena ematen dut.

Zer ematen dizu haurren judo irakasle izateak?
Hemezortzi urterekin hasi nintzen klaseak ematen, eta oso pozik nago oraindik, ilusio handiarekin. Asko asebetetzen nau. Haurren bilakaera ikustea oso ederra da. Konfiantza ematen diet, eta asko ikasten dute nirekin. Hori bai, tatamitik kanpo lagunak gara, baina barruan ez. Ondo ulertzen dute diferentzia hori.

Zergatik da horren gomendagarria judoa?
Arlo askotan izan daiteke onuragarria. Esaterako, hiperaktiboak diren haurrak lasaitzeko balio du. Lasaiegiak direnak, berriz, piztu egiten ditu. Kontzentrazio arazoak dituzten haurrentzat ere oso gomendagarria da, ikasketa arazoak dituztenentzat, adibidez. Bestalde, autodefentsa moduan lantzen dugu, gaur egun, emakumeei zuzenduta batez ere, indarkeria kasuei aurre egin ahal izateko.

Badago jendea judo borrokarik egiten ez duena. Baina kata mugimenduak egiten dituzte, gimnasia modura. Ni, judo irakasle izateaz gainera, terapeuta ere banaiz. Nerbio-sistema zentralean arazoak izan dituen jendeari judo mugimenduak bidaltzen dizkiot, ariketa moduan. Eta hobekuntza ikaragarria nabaritzen dute.

San Martzial Txapelketa ere antolatzen duzue. Lan handia eskatzen du?
Hori ere Gonzalo Lavado maisuak jarri zuen martxan. Beranduago Laujudo elkartea sortu genuen, Irungo lau elkarteren artean, San Martzial txapelketa antolatzeko. Supercopa A mailako lehiaketa da, eta Estatu osoan horrelako hiru besterik ez daude. Bokazioa eta ilusio handia eskatzen ditu. Maila handiko jendea pasa da San Martzialetik, gerora Joko Olinpikoetan dominak lortu dituzten judokak ere bai. Hala ere, maila horretako jendea ekartzea gero eta zailagoa da, dirurik ez dagoelako.

Adore nekaezina

Bukaera ikusgarria eman dio Iñigo Cervantesek 2015 urteari

Gurpil-aulki batean zegoen Iñigo Cervantes duela bi urte. Orain, munduko tenis jokalari onenen artean dago. 26 urte besterik ez dituen arren, oztopo ikaragarriak gainditu ditu tenislari irundarrak. Baina ez du amorerik eman, gogor lanean jarraitu du, eskuraezinak ziruditen helburuak gainditzeko. ATP zerrendako 72. tokian amaitu du urtea.

Gogoangarria izango da 2015a Iñigo Cervantesentzat. Emaitza onak lortu ditu urte osoan zehar, eta amaiera bikaina eman dio gainera. ATP Challenger mailako lehiaketak irabazi ditu Ostravan (Txekiar Errepublika), Vicenzan (Italia) eta Marburgen (Alemanian). Azaroan Hego Amerikan ibili zen, eta denboraldia borobildu zuen. Uruguaiko Montevideon garaipena lortu ez zuen arren, finalera heldu zen, eta horri esker, Top 100 zerrendan sartzeko ametsa bete zuen. 98.tokian amaitu zuen lehiaketa. Brasilen, aldiz, garaipenaren zaporea dastatu zuen berriro. ATP Challenger Finals lehiaketa garrantzitsua irabazi zuen Sao Paolon, eta beste 26 postu igo zituen, 72.eraino.

Final gogorra izan zen Sao Paolokoa. David Muñoz de la Nava madrildarra mendean hartu zuen Cervantesek, hiru setetan, azkena tie break-ean. De la Navak abantaila zuen, ez zuelako finalerdirik jokatu, Guido Pella argentinarrak min hartu zuelako. Cervantesek, berriz, lau partida jokatu zituen aurreko lau egunetan, eta nekea antzeman zuen. Lehen set-a erraz irabazi zuen (6-2), baina hurrengo bietan sufritu behar izan zuen. Bigarren set-ean madrildarra nagusi izan zen (3-6). Hirugarrenean ere abantaila hartu bazuen ere, Cervantesek indarrak batu eta estualditik ateratzea lortu zuen. Bi match point gainditu eta finala irabazi zuen.

> "Errekuperazio epe bakoitza gainditzean besterik ez nuen pentsatu"

Itzela izan da Cervantesen gorakada 2015 urtean. Datu esanguratsuak utzi ditu. Hasteko, 180 postu egin ditu gora mundu mailako tenislarien ATP zerrendan. Gainera, 70 garaipen lortu ditu, Federerrek (63) eta Nadalek (60) baino gehiago. Soilik Djokovicek (82) eta Murrayk (74) baino gutxiago. Historiako tenislari gipuzkoar onena da jada. Euskal Herri mailan, 100 onenen artean sartu zen azkena Alberto Berasategi bizkaitarra izan zen. Lortutako emaitzei esker, Australiako Irekian parte hartuko du Iñigo Cervantesek urtarrilean. Lehenago, merezitako atsedena hartuko du Gabonetan. "Tenislariaren bizitzak ez du tarterik uzten etxetik pasatzeko. Hango kulturaren, janariaren eta jendearen falta sumatzen dut", onartu du Cervantesek.

Oztopoen gainetik

Sei urterekin hasi zen Iñigo Cervantes tenisean. Club de Tenis Txingudyn hasieran, eta Donostian, beranduago. Futbola ere gertutik jarraitzen zuen, aita, Manuel Cervantes, atezain profesionala izan zelako, Realean, Murtzian, Betisen eta Salamancan. Tenisaren alde egin zuen azkenean, eta Bartzelonarako bidea hartu zuen, hamalau urterekin, trebatzen jarraitzeko. "Han baldintzak hobeak dira tenisean aritzeko: klima, jokalariak, instalazioak etab. Gogorra izan zen, baina ez zegoen beste irtenbiderik. Esperientzia horri esker hazi egin nintzen", argitu du Cervantesek. Bilakaera progresiboa izan zuen, eta 2012. urtean, 23 urterekin, munduko 150 tenislari onenen artean sartzea lortu zuen. Etorkizun handiko tenislaria zirudien.

> "Bizitakoak indartu egin ninduen"

Alabaina, 2013.urtea beltza izan zen Iñigo Cervantesentzat. Lau aldiz sartu zen ebakuntza-gelan, ukondoa, astragaloa eta aldakak operatzeko. Gurpil-aulkian egon behar izan zuen, ez baitzen ibiltzeko gai. Tenisa bertan behera uzteko arrazoi izan zitekeen halako urtea. Cervantesi ez zitzaion burutik pasa: "Errekuperazio epe bakoitza gainditzean besterik ez nuen pentsatu. Baikorra izaten eta maite nauen jendeaz inguratzen saiatu nintzen", baieztatu du Cervantesek. Errehabilitazio luze baten ondoren, kantxara bueltatu zen, 2014ko martxoan. Ranking-eko puntu guztiak galdu zituen, urte osoa eman baitzuen lehiatu gabe. Beraz, behe mailako lehiaketetan hasi behar izan zuen, inbertsio ekonomikoa eginez.

Emaitza onak lortu zituen, eta maila handiagoko lehiaketetan parte hartzeko gonbidapenak jaso zituen. "Bizitakoak indartu egin ninduen", aitortu du tenislariak. Bartzelonako Conde de Godón parte hartu zuen, esaterako. ATP Ranking-eko 248.postuan amaitu zuen 2014 urtea, eta Ferrer Academian entrenatzen hasi zen, Israel Viorrekin eta Javier Ferrerrekin, David-en anaiarekin. 2015a bere ibilbideko urterik onena izan da, eta koska bat gorago kokatu du. Horren seinale, 2016a Australiako Irekian hasiko duela. "Erronka izango da niretzat, bost set-etara jokatzen delako. Motibazio eta ilusio handiarekin ekingo diot", aipatu du Cervantesek.

100 tenislari onenen artean mantentzen ahaleginduko da 2016an. Dena den, ez ditu baztertu helburu handiagoak, lehen hilabeteetan ondo moldatzen baldin bada. Ranking-ean aurrera egiten jarraitzeko, "detaile" txikiak findu behar dituela azaldu du Cervantesek: "Arlo mentalean indartsua izatea batez ere. Dinamika onak aprobetxatzen jakitea, eta txarrei aurre egitea, buelta ematen saiatzeko". Egoera aldrebesak gainditzen, bederen, maisua da Iñigo Cervantes.

TRISTURA
DESATSEGINA BAINA BEHARREZKOA DEN EMOZIOA

TRISTURA emozioa, zerbait edo norbait galtzean edo galtzear dagoela sentitzen dugunean ematen da. Desatsegina izan badaiteke ere, gizakion egokitzapen afektibo emozional eta soziala bideratzen lagundu dezake.

Triste egotea beharrezkoa da, zerbait edo norbait galdu dugunean, egoera onartzen eta gainditzen laguntzen digulako. Emozio guztiek bezala, bere erregulazioan, tristuraren kontzientzia hartzea, onarpena eta ulermena, funtsezkoak dira.

Noiz egoten dira triste haurrak? Afektuz bete duten panpina edo objektu maiteena galdu dutenean, maite duten pertsonarengandik urrundu behar dutenean, norbaitek min eman eta haserretu ez direnean, maite duten pertsona edo animalia hil denean…

Haurrek tristuraren kontzientzia hartzea oso baliagarria da. Triste daude, normala eta ulergarria da. Bi urteko haurrak ez du prozesu hori egiteko moduko adimen heldutasunik, ondorioz, helduok izan behar dugu hitz goxoen bidez bere tristura jaso, onartu eta ulertzen dugunak. Horrela, handitzen den heinean, gai izango da bere kabuz prozesua egiteko; tristura emozioa onartzeko eta ulertzeko.

Baina zer sentitzen dugu helduok haurra triste ikusten dugunean? Zein izaten da gure joera?

Gehienetan, haien tristurak gu triste jartzen gaitu, enpatia sentitzen dugu, eta ez ditugu triste ikusi nahi. Ondorioz, tristura jaso beharrean, garrantzia kentzen diogu. Hau da, objektua galdu badu, beste bat erosi, pertsona edo animalia galtzen badu, mundu sinboliko batean bizirik dagoela azaldu (zeruan dago, izar batean…).

Pentsa dezagun, geldi gaitezen helduon beharrak zeintzuk diren ikustera: Benetan uste duzue hori lagungarri zaiola haurrari? Guri lagungarri gertatzen al zaigu, triste gaudenean, norbaitek triste ez egoteko esatea?

Momentuan baliagarri izan daiteke, baina tristura hor dago, eta jasotzen ez bada, gure gorputzak somatiza dezake, buruko edo tripako minekin, etab. Barnean geratzen da, barnea nahasten eta estutzen.

Bizitzan ditugun tristurak, dolu prozesu txikiak dira. Zerbait galdu dugu, eta ondorioz, egoera berrira egokitu behar dugu. Panpina galdu dugu, eta beste pelutxe batekin lo egiten ikasi behar dugu, arraina hil da eta haren presentziarik gabe bizitzen ikasi behar dugu, gurasoak banandu dira, eta etxe ezberdinetan bizitzen ikasiz goaz hobe sentitzen…

Dolu gehienen atzean aldaketa bat egoten da, eta egoera berrira egokitzeko triste sentitzea, onartzea eta ulertzea beharrezkoa da. Haurtzaroan eta gaztaroan, prozesu horretan lagunduko gaituzten heldu ulerkorrak behar ditugu.

Egunerokotasunean dauden dolu txikiei aurre egiteak, bizitzak eman ditzakeen dolu sakonei, senide baten heriotzari adibidez, modu orekatu batean aurre egiten laguntzen digu. Hil edo zendu den pertsonaren binkulu afektiboa zenbat eta sakonagoa izan, orduan eta sendoagoa da tristura edo mina. Kasu horietan, erregulazioa berdina da, baina huts afektiboa betetzen lagundu behar dugu, haurra edo gaztea babesik gabe geratu ez dadin.

Zein faktore dira garrantzitsuak, afektiboki, harreman sendo baten amaierak uzten duen hutsunea betetzen laguntzeko, haur ra edo gaztea babesgabe senti ez dadin?

Lehenik, heriotzaren gaia tabu baten moduan ez bizitzea. Heriotza bizitzaren zati bat da, eta presente egon behar da eguneroko normaltasunean. Gizakiok hiltzen garelako behar dugu bizitza biziki bizi, presentziaz eta dugunaz gozatuz.

Haurraren galderei naturaltasunez eta zintzotasunez erantzun, segurtasuna eta babesa eskainiz. Denok hilko gara, baina bitartean, geure buruak zaintzeko eta bizitzaz disfrutatzeko ardura dugu. Frustrazio hori bizi behar da.

Geu haurren eredu garen heinean, geure tristurak onartzen eta ulertzen saiatu behar dugu, beraienak jasotzeko errekurtsoak izan ditzagun.

Heriotzaren garaian, haurrak edo gazteak maite izan dugun pertsonaren agurrean partaide sentitu behar du. Nahi duen moduan: marrazki bat eginez, loreak eskainiz, elkarrekin negar eginez…

Tristura sentitu eta onartu ondoren, galdutako pertsonarekin bizitako momentu ederrak gogoratzea eta sentitzea gomendagarria da. Hark emandakoa gugan dagoela azaltzea, eta gure barnean integratzea. Gugan dago eskaini zigun guztia.

Dolua zirkularra da, beraz, tristura joaten den moduan, berriro etorriko da, pertsona hori gogoan dugunean, edo gertaeraren batek hura gogora ekartzen digunean. Tristura sentitzen utzi, eta jasotzen lagundu behar dugu.

Momentu honetan neu ere triste nago. Zergatik?

Hau IRUNERO aldizkarian idatziko dudan azken artikulua delako. 2009 urtetik idazten aritu naizen arren, orain etapa bat amaitzen ari dela sentitu dut, eta horregatik nago triste, dolu txiki bat da. Agur esan behar dut, eta pena ematen didan arren, etapa hau ixtea beste garai berri bat irekitzeko bidea izan daiteke. Nigan dago lan honekin ikasi eta eskaini dudan guztia. Esker mila zuei, hor egoteagatik.

Adiorik ez.

KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA

MAPI URRESTI ORTIZ

Ez adiorik, Mapi

Bai, tristea da agur esatea, Mapi, baina atzera begiratzen badugu, hainbat gurasori ekarpen polita egin diguzu, ezbairik gabe. Oso hurbileko estiloa baliatuz, gurasook egunero egin behar dugun heziketa lana aurrera eramateko lagungarria gertatu da zure ahalegina. Inbidia, urguilua, enpatia, gatazkak… asko izan dira jorratutako gaiak, guztiak ere arruntak bezain korapilatsuak.
Zenbat aldiz artikulua irakurri ondoren zera pentsatu dut: “A, orain ulertzen dut!”. Ulertu dut heziketa ibilbide bat dela eta pazientzia, irudimena, bide berrien bilaketa eta, batez ere porrota, arrakasta erdiesteko ezinbesteko osagaiak direla. Eskerrik asko!

Ana Grijalba

IZOZKI GOXOA

OSAGAIAK:

- Nahi duzun izozki zaporea.
- Esne gaina
- Azukrea.
- Txokolatinak.
- Gozokiak.
- Erregalizak.
- Filipinoak
- Txupatxusak

NOLA EGIN:

Izozkia plater batean bota. Esne gaina eta azukrea gainean jarri. Gero txokolatinak eta gozokiak gainean jarri.
Txupatxusak platerean jarri. Ondoren erregalizak izozkia inguratzen moztuta jarri. Azkenekoz filipinoak esne gainaren gainean jarri eta on egiiiiiin!!!

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak, kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

(Artikulu hau PRENTSA TAILERREko Itziar Guzman ikasleak egin du)

INKESTA: TRATU TXARRAK ANIMALIEI

Artikulu honetan Thayra Villanuevari eta Jon Villanueva-ri animalien tratu txarrei buruz egindako inkesta daukagu.

Itziar Guzman, 4. D Txingudi Ikastola

1. Alde ala kontra zaudete? Zergatik?
Thayra V: Kontra, animaliek ez dute merezi horrela tratatzea.
Jon V: Kontra, pertsonek eta animaliek eskubide berdinak dauzkagu, eta ezin dugu animalia batzuk gaizki tratatu, guk nahi dugulako.
2. Ikusi duzu nonbait, tratu txarrik? Non, nolakoa? Eta telebistan?
Thayra V: Zuzenean, ez. Baina telebistan hainbat kasu ikusi ditut eta benetan lotsagarria iruditzen zait.
Jon V: Interneteko bideo batzuetan ikusi dut. Adibidez, txakur bat nola zapaltzen zuten ikusi nuen, eta ez zitzaidan batere gustatu.

3. **Ezagutzen duzu "El toro de la Vega"? Zer iruditzen zaizu?**
Thayra V: Bai, eta pena asko ematen dit. Zezen horrek ez du merezi horrela hiltzea.
Jon V: Bai, oso gaizki iruditzen zait. Festa bat da, baina ez duzu zertan animalia bat hil joku bat egiteko.
4. Ezagutzen duzu animaliak erabiltzen duen festaren bat?
Thayra V eta Jon V: San Ferminak. Lehenengo partean, korrika egitea ondo dago, minik egiten ez diotelako. Baina bigarren partea, gaizki, zezena hiltzea ez zaigulako gustatzen.
5. Zuk zigortuko zenuke? Nola?
Thayra V: Animaliei egin dioten min berdin eginez. Horrela ikusiko lukete zer sentitzen den hori egiten duzunean.
Jon V: Kartzelara eramanez, eskubideak guztiok ditugulako, baita animaliek ere.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa. (El Bidasoa 1959-X-22)

Orra Orra Mari Domingin

Ospitaleko Sor Tomasa´k kantatzen zuen, oain ogeita amar urte inguru. Eguarriyetan kantatzen zuen:

Orra, orra
Mari Domingin
gurekiñ nai duela
Belen´e' etorri.
Atoz atoz
nai badezu
Belen´era etorri,
kendu bearko duzu
gona zar ori.
Atoz atoz
gurekiñ Belen´era
ikusi dezagun
gaur jayo den
aur ederr ori.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Irungo haurrak agurtuko ditu Olentzerok abenduaren 24ko arratsaldean

Ikazkinari harrera antolatu diote Udalak eta zenbait elkartek

Olentzero Irunen izango da abenduaren 24ko arratsaldean. Laguntzaileekin helduko da, eta ibilbidea egingo du Irungo erdigunean zehar. San Migel auzotik irtengo da, eta San Juan plazara iritsiko da, haurren gutunak jasotzeko. Sei eragile izan dira, Irungo Udalaren laguntzarekin, Olentzeroren etorrera antolatu dutenak: Betti-Gotti, Santiagoko Deabruak, EKT, Txorimaloak Soinu Taldea, Auntxa Trikitixa Eskola eta Eguzkitzako Guraso Elkartea.

Hirugarren aldiz batu dituzte indarrak, Olentzerori harrera egiteko. 2011ra arte Irun Iruten Euskara Elkarteak antolatu zuen, eta hura desagertuta, ekimenari jarraipena emateko modua topatu beharra zegoen. “Udalaren deia jaso zuen elkarteetako batek, eta erabaki zuen beste batzuekin elkarlanean aritzea zela jarduera aurrera eramateko modurik onena”, argitu dute antolatzaileek. Elkarte guztien izenean hitz egitea erabaki dute, denen artean antolatzen baitute Olentzeroren etorrera. Aurten irailean hasi dira lehen harremanetan, eta urrian banatu dituzte ardurak: gurdien prestaketa, jantziak, abereak etab.

Olentzero bazkal ondoren jaitsiko da Irunera. 16:30ean irtengo da San Migel auzoko Alberto Anguera plazatik, laguntzaileen talde handi batekin. Idiek tiratutako gurdi batean joango da ikazkina. Gaztaina erretzaile bat egongo da, eta pottokak, oiloak eta bestelako abereak ere bai. “Baserri munduko giroa sortu nahi izan dugu, Olentzero horrela bizi denez, eroso egon dadin”, adierazi dute antolatzaileek. Trikitixek eta panderoek jarriko diote musika segizioari. Noizean behin geldiuneak egingo dituzte, Gabon kantak abesteko.

San Juan plazara helduta, Olentzerok neska-mutil irundarrei harrera egingo die. Gutunak hartuko ditu, gauean opariak banatzeko. Ongi etorriaren antolatzaileek gurasoei zenbait xehetasun gogora arazi nahi izan dizkiete: “Haur asko dira, eta denbora gutxi dago. Horregatik eramaten ditugu multzoka Olentzerorengana”. 19:00etatik haurrera, Gabon kanten jaialdia egongo da San Juanen bertan, hiriko abesbatzen parte hartzearekin. 20:30ak baino pixka bat lehenago, Olentzerok San Juan plaza utziko du, gau luzea izango baitu aurretik.

Ohitura zaharraren moldaketa

Aspaldidanik egin izan zaio Olentzerori ongi etorria Irunen. Bidasoa bailaran, antzinako ohitura dela azpimarratu dute gaur egungo antolatzaileek: “Gure gurasoek, eta gure aiton-amonek, haien modura ospatzen zuten Olentzeroren etorrera. Pixkanaka aldatu egin da ohitura, eta beste formatu batzuetara egokitu egin da”. Ohitura hori mantentzea izan da ekimena antolatzen duten elkarteen helburua. Aspaldiko elementu batzuk mantendu dituzte: “Olentzero ikazkina da, eta bere itxurak beldurra sor dezake. Bestalde, Olentzerok ez du sekula bizarrik izan, guk dakigula. Orain bizar zuriarekin ateratzen dute telebistako marrazki bizidunetan”.

Hirugarren urtea izango du gaur egungo Olentzeroren etorrerak. Bilakaera handirik ez du izan, besteak beste, Udalaren aurrekontua berbera izan delako. Hala ere, antolatzaileek ez lukete gaur egun dagoenarekin konformatu nahi. “Uste dugu euskal kulturak, eta Olentzerok kasu honetan, gehiago merezi dutela”, aipatu dute. Udalari baliabide gehiago eskatu dizkiote, baina irundarrei parte hartze handiagoa ere bai: “Bakar batzuk egiten baldin badugu ahalegina, ez dugu gauza handirik lortuko”. Joan den urtean, 200 lagun inguru bildu zituzten Olentzeroren inguruan, ibilbidean zehar. San Juan plazan, bospasei haurreko multzoak pasa ziren Olentzeroren ondora, etenik gabe, hiru orduko epean zehar.

Gazte gabonak

- Taloak egiten ikasiko dugu.
Non? Gaztelekuan.
Noiz? Abenduak 21.
Ordua: 18:00.

- Kanpamentu Teknologikoa.
Non? Martindozenea Gaztelekuan.
Noiz? Abenduak 22.
Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.

- Tailerra: Material Birziklatuak erabiliz Olentzeroren opariak prestatuko ditugu.
Non? Martindozenea Gaztelekuan.
Noiz? Abenduak 23.
Ordua? 18:00etan.

- X. Break Txapelketa.
Noiz? Abenduak 27.
Non? Amaia KZn.
Ordua? 17:00etan.
Prezioa? 4,10 euro.

- **Just Dance Txapelketa.**
Non? Martindozena Gaztelekuan.
Noiz? Abenduak 29.
Ordua? 18:00etan.

Errobotika

Zer? Ikas ezazu errobotika Lego eta Scratchekin. Errobota muntatzeko aukera izango duzu.

Noiz? Larunbata, abenduak 19.

Ordua? 17: 00etatik 20:00etara.

Adina? 10 - 14 urte artekoentzat.

Prezioa: 15 €

Non? Kabigorrin (Peña kalea, 1 - Irun)

Informazioa gehiago: Telefonoa: 943 635 333; web orria: www.kabigorri.org.

Izen emateak: http://multimediaeducativa.net/2015/12/robotika-en-navidades-kabigorri

"Akwaba": Oier Gil artistaren argazki erakusketa

Zer? Ghanan (Afrika) ateratako argazkiak. Irudi hauek manipulatuak izan dira, beti ere herrialde honetako kontrastea ikusarazteko asmoarekin: bertan ikus daiteke nola turistek miseria eta exotismoa bilatzen duten, eta era berean, nola bertakoak, bizi duten miseria ezkutatzen saiatzen diren.

Noiz? Abenduaren 11tik 2016ko urtarrilaren 16ra.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Merka2dasoa. Bigarren eskuko merkatua

Zer? Ba al duzu zerbait saltzeko, erosteko edo erabilitako gauzen truke aldatzeko, egoera onean (liburuak, jostailuak, dekorazioa, kirol materiala, haur txikientzako objektuak...)?

Noiz? Abenduak 19

Non? Luis Marianon, Irun.

Ordutegia? 10:00etatik - 14:00etara.

Inforrmazioa eta erreserbak: Tel.: 902 119.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Izotz ekologikoko pista

Non? Zabaltza plazan.

Noiz? abenduaren 12tik 2016ko urtarrilaren 10era arte.

Ordutegia: 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 21:00.
Iraupena: 30 minutu.

* Abenduaren 24an eta 31n (Gabon gaua eta Urtezahar gaua), pista zabalik egongo da, gutxienez 10:00etatik 18:00ak arte, gelditu gabe.

Prezioa:
- Haurrak (13 urtetik beherakoak): 3 euro.
- Haurrak (13 urtetik gorakoak): 5 euro.
- Helduak: 5 euro.
* % 50eko hobari partziala 10 kidetik gorako taldeentzat (ikastetxeak, txangoak, talde bereziak, eta abar).

Abenduaren 9tik 18ra

Zer? Jostailuen bilketa egingo du Gurutze Gorriak. Aurten, jostailu berriak baino ez dira bilduko, haurren artean bereizketarik ez egiteko.

Non? Irungo Gurutze Gorrian. Euskal-Herria Hiribidea, 14-16.

Ordutegia? Astelehenetan eta azteazkenetan: 10:00-14:30 eta 17:00-19:00.
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 10:00-14:30.

Abenduak 16

Zer? Sukaldaritza tailerra Ibarlako "La Juanita" Jatetxeko Unai Gayanes sukaldariaren eskutik.

Non? Argoiak. Bertsolari Uztapide, 6.

Prezioa? Doako Sarrera.

Telefonoa? 943620621.

Abenduak 17

Zer? Pride filmaren proiekzioa.

Non? Kabigorrin.

Ordua? 19:30.

Prezioa? Doako Sarrera.

Abenduak 18

Zer? Solasaldietarako gunea, frantsesez.

Non? CBA Udal Liburutegia. San Juan plaza, 1. solairua.

Ordua? 16:00etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Izena emateko? Telefonoz: 943505421. Astelehenetik ostiralera: 9:00-20:00. Larunbatetan: 8:30-13:00.
- Zuzenean: CBA Udal Liburutegian.

Abenduaren 18tik urtarrilaren 6ra

Zer? Jaiotza. Adorazioaren misterioa.

Non? Ermita kaleko iturrian.

Abenduak 19

Zer? Atzokoak abesbatzak Eguberrietako bere ohiko kontzertua eskainiko du, eta horretarako, orain arte bezala, Kontserbatorioko Orkestraren laguntza izango du.

Non? Amaia KZn.

Ordua? Zehaztu gabe.

Prezioa? Sarrera gonbidapenarekin.

Abenduaren 18tik urtarrilaren 3ra

Zer? 2015ko jaiotzen eta olentzeroren panpinen erakusketa.

Non? Amaia KZko erakusketa aretoan.

Ordua? Asteartetik larunbatera 18:00-21:00; Igandean 11:30-13:30.

Prezioa? Doako Sarrera.

Abenduak 21etik urtarrilaren 5era

Zer? DOA GKEk Bidasoa eskualdearen kolaborazioa eskatu du, azoka solidarioa jartzeko, Eguberrietan.

Azokaren helburua: Boliviako Beni departameduko menpekotasun psikofisikoa daukaten ikasleei laguntzeko dirua biltzea.

Non? Foru kalea, 13

Ordua? Astelehenetik larunbatera: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK


Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 93.000 €

Pisua salgai Hendaian
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portun
Azalera 82 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, trastelekua eta bista politekin.
Pisu erreformatua.
Ref: 04422 180.000 €


Pisua salgai Irun Alde zaharran
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea.
Ereikuntza eta pisua erreformatuak.
Ref: 04399 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmeran
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 52 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea
4. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04464 82.000 €

Pisua salgai Irun Artzes
Azalera 67 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, eguzkitsua eta bista politekin.
Ref: 04441 165.000 €

Pisua salgai Hondarribian
Azalera 46 m², 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea.
Pisu erreformatua.
Ref: 04435 140.000 €

Etxea salgai Hendaian
Azalera 110 m², 3 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, jardina, gas berokuntza eta eguzkitsua. Alde eko lasaia.
Ref: 04336 285.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

II. SUPER AMARA GABONETAKO KROSA

SUPER AMARA BAT
Bidasoa Atletiko Taldea Atletismo Eskola

Abenduak 19

Super Amara Gabonetako Krosaren bigarren edizioa antolatu dute Super Amara BATeko kideak. 5 kilometroko lasterketa da.

Ordua? 16:45

Ibilbidea? Colon ibilbidetik (Komandantziatik) Geltoki kalerantz, Anaka eta Donostia kalea, Mendelu biribilgunera arte. Hondarribia kaletik igo, Colon ibilbidea eta Nafarroa hiribidea kanalera arte. Santiago zubitik jarraituz eta Ramon Iribarren kalerantz biratuz (saihesbide batera), Dunboa anbulategiraino. Handik, Nafarroa hiribidetik eta Colon ibilbidetik Gipuzkoa hiribideraino: Luis Marianon egongo da helmuga.

Prezioak: Behin erabiltzeko dortsal txipa (ekimen solidariorako euroa barne): 12 euro 2015/12/01a baino lehen.

Behin erabiltzeko dortsal txipa (ekimen solidariorako euroa barne): 14 euro 2015/12/01etik aurrera.

Lasterketaren egun bereko izen-emaea (ekimen solidariorako euroa barne): 18 euro.

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI OPAROA OPA DIZKIZUE IRUNEROK